



#### 4 BERTSOLARITZA

### Iturriaga eta Egañarekin bertso-afaria Arrieskalletan

Arrieskalleta Elkartek, Ttaku-nek eta Earra! bertso-eskolak elkarlanean antolatu dute 'Bertsoemotion' bertso-afari berritzailea. Unai Iturriagak eta Andoni Egañak egingo dute bertsoan eta gai-jartzaile lanetan Unai Muñoa arituko da. Aurtengoan "irudiarekin" jokatu nahi dutela adierazi dute ekimenaren bultzatzaileek.

#### 5 GIZARTEA

### Natalia Gonzalez Caño herritarrek 100 urte bete ditu

1914ko azaroaren 22an jaio zen Natalia Gonzalez Caño, Salamancako El Maillo herrian. 1988an etorri zen Lasarte-Oriara, eta herrian bizi da orduz geroztik, bere bi seme-alabekin. Nataliaren etxean bertan ospatu zuten 100. urtemuga atzo, familia giroan. Lasarte-Oriako Udalak ere egin zion bere omenalditxo; lore-sorta eder bat eman zion Pablo Barrio alkateak Nataliari. Atzo ospatu zuten urtemuga, baina herenegun bete zituen Natalia Gonzalez Cañok 100 urte.



## Literatur sarien banaketa kultur etxean

753 lan aurkeztu dira aurten, kategoria desberdinetan



Larunbatean egindako Literatur Lehiaketaren sari banaketa amaitu ostean, familia argazkia atera zuten saritu, kolaboratzaile eta udal ordezkariak.

Aurtengo Literatur Lehiaketako sarituek diplomak jaso zituzten larunbat eguerdian, Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan. Helduen XXVIII. lehiaketa izan da aurtengoa, eta haur eta gazteen XXVII. edizioa. Jendez lepo egon zen hitzaldi aretoa herenegun; sarituen familiek eta ahaideek asko gozatu zuten sari banaketa ekitaldian. Emozioak, giro ona eta txalo zaparrada luzeak nagusitu ziren larunbat eguerdian.

Jendez lepo egon zen hitzaldi aretoa larunbatean; ia eserlekurik ez zen gertatu libre. Sarituek bezainbeste gozatu zuten euren senide eta lagunak, sari banaketa ekitaldian. Pablo Barrio alkateak, Boris Nogales Kultura, Euskara eta Hezkuntza zinegotziak eta Xabier Goitia kultur teknikariak aurkeztu zuten sarien banaketa ekitaldia.

Pablo Barrio alkateak hartu zuen hitza lehenengo. Sarituenganako hitzak izan zituen, eta baita parte-hartzaile guztientzat ere: "Sariak eta

diplomak jasotzea pozgarria eta ona da, baina batez ere lehiaketa honetan parte hartu duten guztiek eurentzat gorde behar dutena da lehen existitzen ez ziren poemak, testuak eta kontakizunak sortzeko gai izan direla. Hori da benetako saria".

#### Bi irakurketa

Ekitaldiaren sarreratxoa egin ostean, ekitaldira bertaratu zirenek bi irakurketaz gozatu zuten. Aitor Tejedorrek eta Maria Perezek egin zituzten errezitaldiak; Roberto Yabe-

nek musikatu zituen bi errezitaldi horiek, gitarra elektrikoa joz. Mikele Mannion egilearen 'Beste astelehen euritsu bat' mikrokontakizuna irakurri zuen Tejedorrek, euskaraz. Perezen txanda izan zen ondoren; 'La casa vacía' poema irakurri zuen, Rafael Bravo egilearen 'La casa apagada' lanetik hartutakoa. Ikusleek txalo zaparrada luzea eta ozena eskaini zieten irakurle eta egileei, egindako lan ona sarituz modu horretan.

Errezitaldiak amaitutakoan iritsi zen sarituek eta ikusleek gehien espero zuten momentua: diplomen banaketa. Pablo Barriok eta Boris Nogalesek banatu zituzten sariak, txandaka. Banan bana atera ziren kategoria desberdinetako sarituak euren diplomak bila, ikusleen txalo artean.

Sarituek euren senide eta lagunak babesa jaso zuten uneoro; saritu baten ahaideek

kartel eta guzti erakutsi zuten, Xabier Goitiak bere izena esan eta berehala. Irribarreak, emozioak eta giro ona izan ziren nagusi larunbat eguerdiko ekitaldian.

#### Kulturaren aldeko aldarria

Kulturaren aldeko aldarritxo egin zuen Boris Nogalesek ekitaldia amaitu baino lehen: "Denon artean sustatu behar dugu kulturaren erabilera, gero eta gehiago".

Aurtengo parte-hartzearekin "pozik" azaldu zen Nogales, "inoiz baino lan gehiago" aurkeztu direlako aurtengo lehiaketara: 753 guztira. Alabaina, esan zuen herritarren parte-hartzea "gero eta urriagoa" dela, eta aldarrikatu zuen lan egin behar dela Lasarte-Oria sariak banatu gabe ez geratzeko. "Lehiaketa honek etorkizuna izan dezan, herrikoak diren kultura sortzaile berriak behar ditugu".

**DESKONTU IKARAGARRIAK !!!**

HOZKAILU KONBI **BOSCH**

LEHEN ~~1490€~~

ORAIN **799€**

**Bideo Lagunak** = TIEN 21 =

Etxekotresna elektrikoetan adituak

Eskaintza gehiago Facebook-ean.  
www.facebook.com/BideoLagunakTien21

Ref: 3KF39X142

**ADURIZ DE LASARTE S.A**

Odolkia- Solomo ontzutua Solomoa baratxuritan

Etxeko txorizoa Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra Basurde burua

Baserri pateia

**BERTAKO FABRIKAZIOA**

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria  
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

## MUSIKA

# Metal gaua Elebeltzen

*Hiloz, Meltdown, Gabezia eta Izu Nauk taldeek eskaini zituzten kontzertuak larunbat gauean*

Metal musika zale asko gerturatu ziren Elebeltzera larunbat gauean, eta ez ziren damutu. Metal gauaren kartela osatzen zuten lau taldeek musikaz astindu zituzten Elebeltzeko hormak, eta baita ikus-entzuleen emozioak ere. Meltdown, Izu Nauk, Hiloz eta Gabezia taldeek (Lasarte-Oriakoak dira azken biak) eskaini zituzten kontzertuak larunbat gauean.

## TXINTXARRI

**M**etal genero desberdinek astindu zituzten Elebeltzeko hormak larunbat gauean.

Giro bikaina arnasten zen gaueko bederatzietan. Metal zaleek bikain erantzun zuten metal gauaren antolatzaileek luzatutako gonbiteari. '4 talde, 4 euro' eskaintzak hainbat eta hainbat ikusle erakarri zituen Elebeltzera.

Meltdown, Izu Nauk, Hiloz eta Gabezia taldeak (herrikoak azkeneko biak) izan ziren metal gauaren kartela osatu zuten lau musika taldeak. Elebeltzeko bozgorailuak ez ziren isildu gaueko

ordu txikiak arte: lau kontzertu, eta etenik gabeko musika emanaldien artean.

**Metal estilo anitzak**

Herriko Hiloz taldea izan zen eszenatokira igotzen lehena. 'Thrash metal' estiloa jorratzen du taldeak. Larunbatetako izan zen hirukote gisa Gipuzkoan eman zuten lehen kontzertua.

Hernaniko Meltdown taldearen txanda izan zen ondoren. Ikusleen artean oso inpresio ona sortu zuen 'Hardcore metal' generoa lantzen duen taldeak. Bi kontzertu ikaragarri, eta beste bi faltan.

Gabeziak eskaini zuen gaueko hirugarren kontzertua.



Kaleratu berri du 'Bilanx' izeneko diskoa, eta lan hori aurkeztu zuten larunbat gauean. Taldeko gitarrajole Julen Basterrak ezin izan zuen taldeki-deekin batera jo, "arazo pertsonalengatik". Dena dela, kontzertua bertan behera ez uztea erabaki zuten, eta bete-betean asmatu zuten.

Zumaiako Izu Nauk taldeak eman zuten gaueko azken kontzertua; 'Herri baten oihua' disko berria aurkeztu zuen ikusleen aurrean.



'Bilanx' diskoa aurkeztu zuen herriko Gabezia taldeak larunbat gauean.

## Topaketa feministak aurkeztu zituzten

**H**erriko emakume talde batek antolatuta, ostira-lean Villa Mirentxun Bilgune Feministako bi kidek Emakume Abertzaleon VI. Topaketa Feministak aurkeztu zituzten. Ondarroan izango dira aurtengoan, abenduaren 13an hain zuzen.

Topaketa hauen helburua egungo egoeratik abiatuta, Euskal Herrian burujabetza feminista bateranzko ibilbidearen edota trantsizioaren oinarriak zehazteko eztabaida ematea da. Oinarri hauek egoeraren gaineko diagnostiko errealek abiatuko dira, jendarte eredu feminista baterako ibilbidea zehazteko.

Aurkezpena egin aurretik, herriko Bea Egizabal ipuin kontalariak bi ipuin eskaini zituen bertaratutakoaren



Villa Mirentxun Bea Egizabalek eman zion hasiera aurkezpenari.

aurrean, bata amodioaren izenean egiten diren gauzen inguruan hausnartzeko eta bestea gozamenari buruzkoa.

**Herriko talde feminista**

Hala ere, Emakume Abertzaleon VI. Topaketen aurkezpe-

naren aitzakitan, bertan bildutakoek, Lasarte-Oriako feminismoaren inguruan talde bat osatzeaz hitz egiteko aukera izan zuten. Herriko dagoen mugimendu feminista batzeko asmoarekin sortuko lukete talde hori.

## Bisita Lanbide eskolan




**U**surbilgo Lanbide eskolak Turkiako Enka Technical High Schooleko ordezkari talde baten bisita jaso zuen aurreko astean. Taldeak interes berezia zuen eskolan energia berriztagarrien esparruan duen sistema aurreratua aztertzeko. Haien hitzetan, oso bisita aberasgarria izan zen eta bertan ikusitako hainbat prozedura eta garapen sistemak bere eskolan ezartzeko prest adierazi zituzten.

Bestetik langile zein langabetuei zuzendutako doako ikastaro asko ditu eskolak. Horien artean berehala hasiko diren Gizarte Segurantzako Prestazioen Kalkulua, Berogailu eta Orokorrean Bero Instalakuntzen muntaia, Kobrezko tuboaren soldadura eta 3D inprimagailuen ikastaroak.

Argibideak nahi izanez gero [www.lhusurbil.com](http://www.lhusurbil.com) edota 943 36 46 00 telefono zenbakia erabili daitezke.

### Diruz laguntzen duten erakundeak

**Babeslea**

**LASARTE-ORIA**  
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

**Laguntzailea****Argitaratzailea:**

Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
**943 366 858/943 371 448**  
G-20407557

**Legezko gordailua:**

SS513/93  
ISSN: 1134-0053

**Inprimategia**

Zeroa Multimedia, S.A.

**Aleak zenbakiko:** 7.800

## txintxarri

**Erredakzioa:**

Maidar Azurmendi, Jon Altuna  
E. Iñigo Gonzalez

**txintxarri@txintxarri.info**

**Publizitatea eta administrazioa:**

Arantza Artola  
**publizitatea@ttakun.com**  
**administrazioa@ttakun.com**

**Laguntzaileak:**

Unai Muñoa, Gorka Lasa,  
Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier  
Odriozola, Jone M. Hernandez,  
Jexux Artetxe, Pako Aizpitarte, Edu  
Galardi

**Informatikoa:**

Xabier Amadoz

## GIZARTEA

# Garapen ekonomikoa aztertzen

## Innoforo saioak egingo dituzte eskualdeko eragileek

**Innoforo lehenengo saioa egin zuten ostegunean Villa Mirentxun. Saio hauek Donostia-Berriko garapenerako ardatz estrategikoak identifikatzeko eskualdeko eragile sozioekonomikoen arteko espazio parte-hartzailea dela azaldu zuten.**



Villa Mirentxun egin zen lehenengo Innoforo saioa, ostegun arratsaldean.

TXINTXARRI

Mertxe Aizpurua eta Luis Intxauspe Usurbil eta Hernaniko alkateek egin zuten lehenengo Innoforo saioaren aurkezpena Villa Mirentxun ostegunean. Horiekin Pedro Iturbe Aldundiko Lurralde Garapenerako zuzendaria egon zen. Lan saioan, besteak beste, eskualdeko alkateak izan ziren parte hartzen eragile ezberdinekin, tartean Pablo Barrio.

Aldundiko ordezkariak, Innoforo ekimena babestu eta eskualdean garapen agentzia sortzeko udaletxeak egiten ari diren lana aitortu zuen.

Garapen agentzia eskualderako onuragarria izango dela aipatu eta Aldundiarekin elkarlanerako bide guztiak zabalik daudela azpimarratu nahi izan zuen. Innoforo

saioen helburua, eskualdean enplegua eta jarduera ekonomikoa sortzeko ekimen zehatzak eta praktikoko abian jartzea izango dela azaldu zuten. Baita eskualdearen garapen sozioekonomikoari laguntzeko politika publikoak definitzea ere.

Egitasmoaren dinamizatzailerak esan zuten ikerketak egitea ez dela saio hauen helburua. "Ez da foro bat Donostia-Berriko arazoaren gainean hitz egin dezaten eskualdeko agenteek. Ekonomia aktibatze-ko aukera berriak sortzeko tresna da Innoforo; enpresen eta bertako eragileen artean elkarlanean aritzeko; datozen urteetan jarduera sozio-ekonomikoa sortuko duten proiektu berriak eta enplegua bultzat-

zeko". Aurreikusitako lan ildoak honako hauek izango dira: Eskualdean garatzeko bidean dauden edota estrategikoak diren sektoreak identifikatzea; tokiko garapena modu koherentean lantzeko estrategia definitzea; aukera-espazioak identifikatzea; aukerak eta ekimenak zehaztea eta abian jarri eta tokiko garapenerako politika aproposak identifikatzea.

Bilera hauek hamabostean behin egingo dituzte eta eskualdeko udal guztiek batera bultzatutako ekimen honek, Andoainek, Astigarragak, Hernanik, Lasarte-Oriak, Urnietak eta Usurbilek, Aldundiaren Berrikuntza, landa Garapenerako eta Turismo Departamentuaren laguntza du.

## Apelliduak abizen bihurtu

Jatorriz euskarazkoak diren abizenak, Jauregui, Arregui, Lecuona, Erquicia..., euskarazko grafiarekin jar daitezke herriko bake-epaitegian. Hau nola egin ezagutzera emateko ekimena jarri dute martxan aurtan ere Buruntzaldeko Udalek.

Jatorriz euskarazkoak diren abizen asko gaztelaniazko grafiarekin idazten dira oraindik. Euskaraz jarri nahi dituztenek nola egin dezaketen ezagutzera emateko ekimena jarri dute martxan aurtan ere Buruntzaldeko Udalek. Azpilicueta, Zalacain, Eizaguirre, Aguirreche, Echeverría, Arregui, Lecuona, Aguirre, eta horiek bezalakoak deitura euskaldun euskarazko grafiaz idatzita nahi dituenak oso modu errazean egin dezake. Bi tokitara joan beharko du herritarrek: Udaletxera eta Bake Epaitegira. Donostian jaiotakoak baldin bada, gainera, Donostiako Erregistro Zibilera ere joan beharko du. Aldaketa egin ahal izateko, hiru agiri eskuratu behar dira: errolda-agiria, Udaletxean eskatu behar dena; jaiotagiri



Bake epaitegian eska daitezke informazioa.

ofiziala, jaioterriko Bake Epaitegian eskuratu behar dena; NANren fotokopia. Ezkonduak edo seme-alabak dituztenek Familia Liburua ere eraman behar dute. Agiri horiek herriko Bake Epaitegira eraman eta horrekin bertan egingo dute abizenaren aldaketa.

Donostian erregistratuta daudenek jaiotagiri literala eskuratzeko, herriko Bake Epaitegira ez, Donostiako erregistro Zibilera joan beharko dute.

Erregistro Zibila Kalkutako Teresa plazan dago, Donostian. Zalantzaren bat duenak nahikoa du herriko Bake Epaitegian galdetzea, han emango dizkiete argibide guztiak. Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalek euskararen arloan elkarrekin aurrera eramaten dituzten ekintzetariko bat da ekimen hau, eta tokian tokiko bake-epaitegiekin lankidetzan egingo dute.

## JAIK

## Santo Tomas jaian Okendon postua jartzeko deialdia

Ttakun Kultur Elkartek Santo Tomas egunean postua jarri nahi dutenei deialdia luzatzen die. Kontutan hartu eta baloratuko da jendeari harrera euskaraz egitea eta Santo Tomas egunaren filosofiarekin bat egitea, jantziei eta eskaintzari dagokionez.

Interesatuak abenduaren 15a baino lehen [kultura@ttakun.com](mailto:kultura@ttakun.com)-era mezua bidali beharko dute. Honetan erakundearen edo arduradunaren izena jarri beharko da, harremanetarako telefono zenbaki bat eta labor azalduta postuan izango den eskaintza.

Ttakunek eskaera guztiak jaso eta berehala jarriko da harremanetan eskaera egin duten herritarrekin. Hauen artean, lehentasuna izango dute herriko taldeek.

## IKASTAROA

## Talo ikastaroa abenduaren 15ean Arrieskalleta elkarte

Ttakunek Santo Tomas eguna dela eta iaz bezala Talo ikastaroa antolatu du. Abenduaren 15ean izango da Arrieskalleta elkartearen eta honetan parte hartzeko, aurrez izena eman beharko da Ttakunen. [kultura@ttakun.com](mailto:kultura@ttakun.com) helbidean edo 943 37 14 48 zenbakira deituta. Ikastaro irekia da.

## GIZARTEA

## LABek irabazi ditu Michelingo hauteskunde sindikalak

Michelinen hauteskunde sindikalak ospatu zituzten aurreko astean eta LABek irabazi zituen, CCOOri 57 bozkako aldea aterata. Denera 181 bozka bildu zituen LAB sindikatuak eta sei delegatu eskuratu zituen Enpresa Batzordean ordezkari izateko. Bigarren egin zuen CCOOk, 124 bozka eta lau delegatu lortuz. Atzetik, CSI (77 bozka, bi delegatu), ELA (76 bozka, bi delegatu) eta UGT (54 bozka, bi delegatu) geratu ziren.

Are eta nabarmenagoa da LABen garaipena tailerretan 163 bozkekin, CCOOri ia 100 boto kopuruko aldea aterata. Bulegoetan, aldiz, CCOOk irabazi zuen 59 bozkarekin eta LABek 18 besterik ez zituen lortu.

Hala ere, Enpresa Batzordeak dituen 17 delegatuetatik 6 sindikatu abertzalearentzat izan dira lehen aldiz.

## PSE-EE: "Enplegu gaietan inprobisatzen ari da Bildu"

Buruntzaldea eskualdeko PSE-EEK salatu du ohar bidez EH Bilduk ez daukala "enplegua eta aktibitate ekonomikoa sortzeko plan argi bat". Talde sozialistaren ustez, koalizioa "inprobisatzen" ari da.

Talde sozialista "atsekabeta" dago Donostia-Berriko Innoforoaren berri "komunikabideen" bitartez jaso dutelako: "Ez dugu ulertzen nola esan dezakeen Bilduk ekimena eskualdeko udaletxe guztiek bultzatu dutela. Ez da udal-batzordeetan erabaki, eta gainontzeko alderdi politikoei parte-hartzea ukatu zaie".

PSE-EEren ustetan 'Innoforo' EH Bilduren "azken orduko aterabidea" da, Garapen Agentziarekin jarraitzea "ezinezko" duela ikusi duenean abiatutakoa: "Proiektuak legea hausten duela erakutsi zuten udaletxe ezberdinetako idazkari eta interbentoreek eta Lasarte-Oriako Udalak gehiengoz atzera bota zituen

Bilduk proposatutako estatutuak", adierazi du PSE-EEK ohar bidez.

"Orain formatua aldatu egin nahi dute, Garapen Agentziaren estatutuak moldatu beharrean", salatu du eskualdeko PSE-EEK.

Zentzu horretan, gonbidapena luzatu dio talde sozialistak EH Bilduri: "Benetan enplegua sustatzeko proiektu berriak martxan jarri nahi badituzte, has daitezela PSE-EEK udaletxe ezberdinetan bultzatu dituen proposamenduetatik, esaterako enpresen haztegi edota enplegu-mahai bat eratzeari ekin diezaiokete, sozialistok aspaldian eskatzen ari garen bezala".

Amaitzeko, politikan "denak" ez duela balio ohar-tarazi eta milaka herritar "egoera larria" pairatzen ari diren bitartean "elektoralki" jokatzeko aritza leporatu dio oharrean eskualdeko PSE-EE alderdiak EH Bildu koalizio abertzaleari.

# 'Bertsoemotion 3D' afaria Arrieskalletan

Unai Iturriagak eta Andoni Egañak egingo dute bertsoan ostiralean, 21:00etatik aurrera

**Arrieskalleta Elkarreak, Ttakunek eta Earra! bertso-eskolak elkarlanean antolatu dute 'Bertsoemotion' bertso-afari berritzailea. Unai Iturriagak eta Andoni Egañak egingo dute bertsoan eta gai-jartzaile lanetan Unai Muñoa arituko da. Aurtengoan "irudiarekin" jokatu nahi dutela adierazi dute ekimenaren bultzatzaileek, eta horretarako ikus-entzuleen umetako argazkia bertsoemotion@gmail.com e-postara bidaltzeko eskatu dute. Txartelak salgai daude dagoeneko Jalgin, 25 eurotan.**

TXINTXARRI

Ostiral gauean, herriko bertsozaleek badute hitzordua. Unai Muñoak gidatuta, Andoni Egaña eta Unai Iturriaga punta-puntako bertsolariak Lasarte-Oriako plaza ezagunenetako batera etorriko baitira, Arrieskalleta elkartera hain zuzen.

"Badira zazpi urte Arrieskalleta Elkarrea sortu genuela eta helburu behinenetako bat euskara sustatzea izan da has-tapenetatik, beraz, testuinguru horretan kokatu beharko genuke gaurko saioa", adierazi du Iñaki Izquierdo elkarreko kideak.

Earra! bertso-eskolakoekin harremanetan jarri eta saio

"berritzailea" prestatuko zutela adostu zuten, irudia ardatz hartuta. "Ekitaldi polit bat izatea nahi genuke. Herrian beti egin izan dira gauza esperimental eta arraroak, ataka estuan jarri ohi ditugu bertsolariak eta emaitzak orokorrean oso positiboak izaten dira", esan du Izquierdok.

## Bertsoemotion 3D

Aurtengo nobedadea izenburuak berak dakar, "bertsoa" eta "emozioa" uztartzeko asmoa dute Arrieskalletan: "Irudiak protagonismo handia izango du, trailer eta bideo batzuk proiektatuko ditugu emozioak sustatzeko eta gero bertsolariak sortuko den giro edo aldarte horren gainean bertsoan egitera bideratuko



laz Arrieskalletan egin zen bertso afarira Amets Arzallus, Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña etorri ziren.

ditugu; esperientzia polita izango da", adierazi du Unai Muñoa Earra! bertso-eskolako kideak.

Gaiak "askotarikoak" izango direla adierazi du: "Bertso-afaria izanik, umoreak protagonismo handia izango du zalantzarik gabe, baina izango da gai sakonagoetarako tarterik", esan du Muñoak.

Jendeak bertsoemotion@gmail.com helbidera bidaliko dituen irudiekin zer egingo duten ez dute azaleratu nahi izan antolatzaileek "sorpresa ri" tartetxo bat uzteko.

"Bertsolari eta ikusleen artean komunikazio berezi bat sortuko da, irudiek aldarte jakin batera induzitu eta bertsoen indarrak emozioz-tzea lortu nahi dugu"

## Afari menua

Elkarrea bera arduratuko da afaria prestatzeaz. Menua honakoa: euskal txerriaren kutixiak, arrain-zopa, azpizuna, postrea, kafea eta pattarra.

Txartelak salgai daude dagoeneko Jalgin, 25 eurotan. Antolatzaileek zehaztu dute afarira joateko ez dela beharrezkoa elkarreko bazkide izatea.

## Kontakizun klasikoak, garaikide



Adi-adi entzuten zituen semeak (Aitor Fernandino) 'Erpurutxo' istorioaren xehetasunak, aitaren (Peio Arnaez) ahotan.

Erpurutxo' antzerkia taularatu zuen larunbat arratsaldean Teatro Paraiso konpainiak. Herritarren erantzuna antzezlan bezain ona izan zen: hainbat haur, gazte eta helduk gozatu zuten antzerkiak Manuel Lekuona kultur etxean. Bertan izan ziren baita ere Sasoetako Urtxintxak. Larunbatekoa izan zen aurtengo lehen ekintza.

'Erpurutxo' kontakizun klasikoa izan arren, 'abandonua' gai garaikidea lantzen da antzezlan horretan.

## Bi istorio paralelo

Ipuin klasikoan, Erpurutxo eta anai-arrebak basoan abandonatzen dituzte gurasoek, baliabide eskasia dela medio. Dena dela, Erpurutxo bizkorrrak lortzen du bere anai-arreba guztiak etxera bueltan eramatea, harri koxkorak utzi dituelako bidean.

Ipuin klasiko horrekin zihuan elkarlotuta aita-seme batzuen istorioa. Semeak aita zaintzen du, euren bizitzetan oso garrantzitsua izango den egun baten atarian. Antzezlan

nean bi istorio horiek paralelismo interesgarri bat osatzen dute, ikusleen gozagarri. Tentsioa, umore ukituak eta emozioa ditu Teatro Paraisoren 'Erpurutxo' antzezlanak.

Aitaren logela ikusten da eszenatokian, eta hor gartzen da istorio osoa. Argiztapenarekin egindako jokoek, musikak, eszenografia simple baina txukun batek eta bi aktoreen antzeppen oso onek osatzen dute larunbatean hainbat herritarrek ikusi zuten 'Erpurutxo' antzezlan.

## Jaiotza lehiaketa prest



Lan politak egiten dituzte herritarrek urtero, Jaiotzen lehiaketan.

Hilabete eskas falta da Gabonak iristeko. Festa horien adierazgarrietako bat da Danok Kide elkarrekin urtero antolatzen duen Jaiotzen lehiaketa. Jaiotzak abenduaren 19an eta 20an entregatu beharko dira Blas de Lezo kaleko 11. zenbakian; sari banaketa handik astebetara izango da, abenduaren 28an, 12:00etan.

## Lehiaketaren oinarriak

Aurtengo lehiaketaren oinarrien berri eman du Danok Kidek, ohar bidez. Herritarrek aurkeztutako lanek 80 x 60 zentimetro izan ditzakete gehienez. Interesa dutenek bakarka edo taldeka aurkeztu ditzakete lanak; hori bai, per-

tsiona edo talde bakoitzak lan bakarra aurkeztu beharko du.

Jaiotzak entregatzeko bi egun jarri ditu Danok Kide elkarrekin: abenduaren 19a (ostirala) eta 20a (larunbata). Lanak arratsaldeko seietatik zortzietara bitartean entregatu beharko dituzte herritarrek, Blas de Lezo kaleko 11. zenbakian.

Jaiotzak eramaterako orduan, gutunazal bat entregatu beharko da: kanpoko aldean bere adina zehaztu beharko du parte hartzaileak. Barruan berriz, izena, helbidea eta telefono zenbakia.

Abenduaren 28an (igandean) banatuko ditu sariak Danok Kide elkarrekin, 12:00etan.

# Gerra garaiko herria ezagutzen

Lasarte-Orian zehar ibilbide historikoa egingo du Islada Ezkutatuak taldeak larunbatean

Eskuorriak jasoko dituzte etxean lasarteoriarrek, aste honetan zehar. Eskuorria irekiz gero, mapa bat topatuko dute: herriko 34 leku desberdin ikusiko dituzte, alboan marrazki txikitxo batzuk dituztela. Gerra Zibilean toki horietan zegoena islatzen dute marrazkitxoek. Gune horietako batzuk ezagutzeko aukera edukiko dute herriarrek, larunbatean egingo den ibilbide historikoan.

## TXINTXARRI

Villa Mirentxun hasiko da larunbateko ibilbide historikoa, 12:00etan. Bertatik Okendo plazara, San Pedro eliza ingurura, Brigitarren Komentura eta Hipodromoko zubira joango dira. Gune horiek Gerra Zibilean nolakoak ziren azalduko dute Islada Ezkutatuak taldeko kideek.

“Lehenengo ibilbide honetan ez ditugu eskuorriari agertzen diren gune guztiak ikusiko. Ordu edo ordu eta erdiko ibilaldia izango da larunbatekoa, herritarren parte hartzearen arabera”, azaldu zuen ostiralean Mikel Amenabar Islada Ezkutatuak taldeko kideak.

Aurkezpena egin zuten ostiral arratsaldean, larunbateko ibilbide historikoari buruzko xehetasunak emateko. Islada Ezkutatuak taldeko Mailu Arruti eta Mikel Amenabarrek eta Pablo Barrio alkateak eskaini zuten prentsaurrekoa Manuel Lekuona kultur etxean.

### Oroimen historikoa islatzen

“Oroimen historikoa azertu eta zabaltzen dugu; lan horren barruan dago kokatuta larunbatean herrian zehar egingo dugun ibilbidea”, azaldu zuen Mailu Arrutik.

“Hiru informazio iturri baliatu dugu ekimena antolatzeko: adineko pertsonen testigantzak entzun ditugu, udaletxeetako artxibategiak



Mailu Arruti, eta Mikel Amenabar Islada Ezkutatuak taldeko kideak eta Pablo Barrio alkatea, ostiral arratsaldeko agerraldian.

kontsultatu eta Gerra Zibil garaiko prentsa azertu”, adierazi zuen Arrutik.

“Udala azaroan zehar giza-eskubide desberdinak lantzen” ari delako erabaki du Islada Ezkutatuak taldeak ibilbidea hilabete honetan egitea. “Eskuorriari mapa forma eman diogu, herriko 34 gune desberdin islatzeko formatu egokia delako”.

“Guk orain arte bildu eta aztertuko dugunari buruz

ariko gara larunbatean. Beti egiten dugun moduan, herritarrei esan nahi diegu oso gustura jasoko ditugula datu, izen eta gisa horretako dokumentuak, oroimen historikoa osatzen jarraitzeko”, azpimarratu zuen Arrutik. Mikel Amenabarrek gogorarazi zuen “jakin min hutsagatik” egiten duela lan hori Islada Ezkutatuak taldeak, ez “mendeku nahiagatik edo gorrotoagatik”.

### Udalaren “babesa”

“Proposamen oso interesgarria da Islada Ezkutatuak taldeak planteatzen duena. Askotan ez ditugu ezagutzen gure herriko historiaren xehetasunak, zer eta non gertatu ziren hainbat eta hainbat gauza”, adierazi zuen Pablo Barrio alkateak ostiralean.

“Urrats oso polita egin dute herritarrengana hurbiltzeko; Udalaren babes osoa dute lanean jarraitzeko”.

## Beldur barik sari-banaketa



Lasarte-Oriako Beldur Barik lehiaketako saridunen familia-argazkia.

Altxa emakumea, hautsi aurre kateak’ lana izan da 12 eta 17 urte bitarteko mailan lehenengo saria eskuratu duen obra eta ‘(Hel)mugak’ berriz, 18-30 urte bitartekoetan gailendu dena.

Lehiaketara aurkeztu ziren lau filmak ikusteko aukera izan zen ostiralean Manuel Lekuona kultur-etxearekin areto nagusian. Denera 50 herritar hurbildu ziren ‘(Hel)mugak’, ‘Altxa emakumea, hautsi zure kateak’, ‘Eta gu zer’ eta ‘Bazen behin neska bat beldur barik’ filmak ikustera eta ostean, sari-banaketa egin zuten Pablo Barrio alkatea buru, Maider Seguro kazetaria ekitaldiaren aurkezle zela.

Epaile lanetan aritu direnak berriz, honakoak: Oken-

do Zinema taldeko Juanjo Erauskin eta Laura Noguera, Gizarte Zerbitzuen arloko arduradun Izaskun Oronoz eta Oscar Aranda Emakumeen Zentroko sexologoa.

“Bideo gutxi jaso ditugu, baina lan bikainak izan dira, maila handikoak zuten denboratartea kontutan hartuta. Zabaldu nahi dugun mezuetako bat jasotzen dute denek, genero indarkeriari positiboki aurre nola egin alegia”, adierazi zuten epaimahaikideek ekitaldia amaitzean.

Herriko txapelketako sariak banatu badira ere, Euskadi mailakoak erabakitzeke daude, beraz, herritarrek eginko lanak bozkatu daitezke gaur eta bihar artean [beldurbarik.org](http://beldurbarik.org) webgunean.

## Natalia Gonzalez Cañok 100 urte bete ditu

1914ko azaroaren 22an jaio zen Natalia Gonzalez Caño, Salamancako El Maillio herrian. 1988an etorri zen Lasarte-Oriara, eta bertan bizi da egun, Caddie enparantzako 2. zenbakiko 4. solairuan. Bertan ospatu zuen atzo Nataliak 100. urtemuga, familia giroan. Herenegun bete zituen urteak.

Urtemuga guztiak izaten dira bereziak, baina 100 kandela ez dira egunero itzaltzen. Horregatik, familiaren eta Lasarte-Oriako Udalaren omenaldi xumea jaso zuen Natalia Gonzalezek. Pablo Barrio alkatea eta kazetariak gonbidatu zituen Nataliaren familiak, eta denek ospatu zuten urtemuga berezi hori. Xanpainarekin topa egin zuten, eta pasta gozo batzuk jan. Pablo Barrio alkateak lore-sorta ederra eman zion Natalia Gonzalezek.

Gonbidatuak ezer galdetu aurretik jabetu ziren Natalia Gonzalez Caño egoera onean dagoela, 100 urte bete arren. Pablo Barrio alkatea Natalia agurtzera joan, eta berarengana hurbildu zenean aulkitik bere kabuz altxatu zen Natalia, alkatea agurtzeko. “Orain dela gutxi ospitalean egon da gure ama; neumonia, gerru-infekzioa eta odol-infekzioa



Bilerara joan ziren komertzioetako ordezkariak argazkia atera zuten bukaeran.

eduki ditu azkenaldian, baina denak gairitu ditu”, zehaztu zuen Nataliaren alaba Maria Rosariok. “Azkenaldian pendienteago egon behar dugun arren, oso burujabea izan da beti ama; orain dela gutxi arte bakarrik jaisten zen plazara, janaria prestatzen zuen, arropa ere berak bakarrik erantzen zuen...”.

### Salamancatik Lasarte-Oriara

Bizitzako urte gehienak bere jaioterrian igaro zituen Natalia Gonzalezek, Salamancako El Maillio herrian. Bertan ezkondu zen 1933. urtean, Emilio Gonzalezekin. Hiru

seme-alaba eduki zituzten: Felix (zenduta dago), Angel eta Maria Rosario. Lurra lantzetik bizi izan zen Natalia Gonzalezek familia Salamancan. 1988. urtean etorri ziren Lasarte-Oriara, eta geroztik hemen bizi da Natalia Gonzalezek, bere bi seme-alabekin batera.

Sei biloba eta bederatzir birbiloba ditu Natalia Gonzalezek. Lau belaunaldi bildu ziren atzo Caddie enparantzako 2. zenbakiko 4. solairuan, Natalia Gonzalezek urtemuga ospatzeko. Omenduak esker hitzak izan zituen denentzat, ekitaldi bukaeran.

## SASKIBALOIA.

## Garaipenez garaipen

Ostadar SKT saskibaloia junior taldeko neskek 71-30 garaitu zuten Internacional larunbatean

Denboraldiko seigarren garaipena eskuratu zuten **Ander Otaegik zuzendutako neskek Lasarte-Oriako kiroldegian, larunbat arratsaldean. 41 puntuko aldearekin garaitu zuten Donostiako Internacional taldea: 71-30 izan zen emaitza. Garaipena besterik ez dute ezagutzen junior neskek; seitik sei irabazi dituzte.**

IGNIGO GONZALEZ

Ostadarren saskibaloia junior nesken taldeko jokalariren bat edo entrenatzailea kalean topatu eta partiduren emaitzari buruz galdetzen dionak jakin beharko luke erantzuna honezkerok: Garaipena. Beste hitzik ez dute ezagutzen orain arte junior neskek; seitik sei norgehiagoka irabazi dituzte lehenengo fasean.

#### Hasiera trabatua

Bi taldeei kosta egin zitzaizkien baloia saskian sartzea hasierako minutuetan. "Kosta egin zaigu erritmoa hartzea lehen laurdenean. Blokeatuta egon gara". Horrela laburtu zuen Ander Otaegi entrenatzaileak Ostadarren lehen laurdena. Partzialak ere garbi utzi zuen "blokeo" hori: 9-6ko markagailuarekin amaitu zen lehen laurdena. Hori bai, markagailuan Ostadarreko neskek izan ziren nagusi hasieratik.

#### HERRI-KIROLAK.

## Urtzi Telleria, Euskadiko azpitxapeldun

Harri txikien Euskadiko azpitxapeldun, eta 80 kiloz azpikoen mailan txapel-dun izan zen Urtzi Telleria harri-jasotzailea azaroaren 9an Aiako probalekuan.

Bost gizon aritu ziren lehian: Inhar Urruzuno, Jose-txo Urrutia, Jagoba Otaegi, Iñigo Eizagirre eta Urtzi Telleria herritarra bera.

Egin beharreko lana, honakoa: 125 kiloko errektangularra, 125 kiloko zilindroa, 112,5 kiloko kubikoa eta 100 kiloko bola hiru minutuko saioetan ahalik eta gehienetan berdintzea.

Lanik onena Inhar Urruzunok osatu zuen. Ondarrutarak 11.537,5 kilo jaso zituen, lau harriei 99 jasoaldi eman eta 21 gutxiago eman zituen Urtzi Telleria herritarrek, 78 denera, 9.062,5 kilorekin.

Atzetik Urrutia, Otaegi eta Eizagirre sailkatu ziren hurrenez hurren.

#### Ostadar SKT nagusi

Lehenengo laurdena trabatua izan bazen, guztiz kontrakoak izan ziren beste hiruak. Talde bat izan zen norgehiagokaren jaun eta jabe: Ostadar SKT.

"Blokeoa" aulkian utzi eta etengabe lortu zituzten saskiraketak Ander Otaegiren neskek. 20 puntuko aldearekin joan ziren atsedendira. Emaitza, 36-16.

Ostadarreko neskek alde mantendu bakarrik ez, bikoiztu ere egin zuten bigarren zatian. 71-30eko emaitzarekin bukatu zen partidua.

#### Bigarren faserako "prest"

Lehen fasea bukatzeko lau partidu falta diren arren, Ostadarreko junior neskek sailkatu dira hurrengo faserako. "Jokalaria ia gehienak lehen urtekoak dira. Hasi baino lehen ez genekien nolakoa izango zen lehen fasea, baina oraingoz partidu guztiak irabazi ditugu", esan zuen Otaegik. "Bigarren



Seitik sei norgehiagoka irabazi dituzte Ostadar SKTko saskibaloia junior neskek.

fasean maila altuagoko aurkariaren kontra ariko gara, ikusiko dugu zer moduz doagigun".

#### Astebukaera biribila

Ostadar SKTko gainontzeko saskibaloia talde guztiek eskuratu dituzte garaipenak astebukaera honetan. Partizipazio mailako kadete neskek 70-18 hartu zuten mendean Zerkauri Take taldea atzo goizean; senior 3.mailako mutilek jokatu zuten gero, eta 85-59 egurtu zuten Antigua Luberrri. Azkenik, errendimenduko kadete neskek 60-63 irabazi zuten Askatuak Cafes Aitona taldearen aurkako partiduan.



Ostadarreko jokalaria Haizea del Olmo, errebotea hartzeko borrokan.

#### IGERIKETA.

## Buruntzaldea IKTko igerilari gaztetxoek Tolosan hasi dute neguko denboraldia

Pasa den larunbatean, Buruntzaldea IKT-ko gaztetxoek txapelketari hasiera eman zieten ligako lehenengo jardunaldiarekin. Tolosan izan zuten proba eta guztira Buruntzaldea IKT-ko 56 haur izan ziren lehian benjamin eta alebin mailetan. Estilo guztietan egin zuten igerian gazte lasarteoriarrek, bular, bizkar, libre eta erreleboetan.

"Orokorrean benetan gustura gaude gure igerilari txikiak egindako txapelketarekin, bereziki aurten hasi berriak direnekin. Guztiek distantzia oso txukunetan, estilo onarekin eta modu egokian egin dute igeri. Emaitzetatik at, arlo hauek dira garrantzitsuenak adin hauetan", adierazi zuen Borja Apeztegia prestatzaileak probak amaituta.



Buruntzaldea IKTko gazteak pozarren, Tolosako jardunaldiaren ostean.



80 kiloz azpikoen mailan, Euskadiko txapela jantzi zuen Telleriak (zuriz).

#### Telleria, konforme

"Gure helburua lana behar bezala egitea zen, lortu genuen eta gustura nago", adierazi du Urtzi Telleriak.

Lehen postua "urrun" ikusi zuela onartu eta hirugarren harriarekin "momentu txarrak" izan zituela aitortu du: "Zorabiatzen hasi nintzen, 80 kilo azpiko mailan sartzeko dieta gogorra egin nuen udarran eta nerbio falta antzeman

du txapelketan. Dena den, hirugarrenarengandik aldentzen ari nintzela ikusita, lasaitua hartu eta indarberritu egin naiz, oso pozik nago. Lehen postua garesti zegoen Urruzunok ni baino 16 kilo gehiago pisatzen dituelako, beraz, ezin inolaz kexatu".

Orain, atsedean hartuko du Lasarte-Oriako Telleria II.a harri-jasotzaileak, otsaileko txapelketak buruan.

# Agenda

Astelehena 24tik - 28ra, Manuel Lekuonan 19:00etan

## XXII. Osasun Jardunaldiak



**Astelehena 24, 'Aulki hutsak'** dolu eta itzaropenaren inguruko dokumentala eta ondorengo mahai-inguru. Bidegin elkarteko Iazkun Andonegirekin. Dokumentala euskaraz emango da, gaztelerazko azpitituluekin.

**Astearte 25, 'Erortzea tailerra'.** Adinduen osasun eta autonomia galerak, eta bizitza kalitate gainbeherak Osasun publikoan duen eragina, eragin fisiko, psikiko eta sozio-ekonomikoaz hitz egingo da.

**Asteazkena 26, 'Bizitza osorako etxebizitza, nire gaitasunak aldatzen'** nire gaitasunak aldatzen direnarekin, nire etxea nola prestatu.

ICAVI taldeko Laida San Sebastianek 'Adinduen etxeetako erabilerraztasuna eta laguntza-soluzioak' gaiaren inguruko hitzaldia emango du.

**Osteguna 27, 'Menopausia modu positiboan bizituz'.** Emakume gehien bizitzan aldaketa eragiten duen garaiaren inguruan hitz egingo du Emakumeen Zentroko Oscar Aranda sexologoak.

**Ostirala 28, 'Erlaxazio tailerra'.** Jardunaldiarekin bukatzeko, yoga eta pilates irakaslea den Naiara Urkizuren eskutik, erlaxazio tailerra egingo da.

## Lasarte-Oria

### Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

**Igandea 30, 17:00etan**

'Guardianes de la galaxia' filma ikusteko aukera izango da haurren zinema atalean. Sarrera Interneten 3,18 euro eta egunean bertan erosita 3,70 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

**Igandea 30, 19:30ean**

'El corredor del laberinto' filma helduen zinema atalean. Sarrera Interneten 5,30 euro eta bertan 5,90 euro.

## Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

**Ostirala 28, 18:00etan**

'Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna' egitarauaren baitan 'Belarrira kontatzeko ipuinak' emakumeen zentroko Makelur antzerki taldearen eskutik. Sarrera libre izango da gonbidapenarekin.

## Ipuin-kontalaria

AMARAUN LUDOTEKAN

**Astelehena 24, 18:00etan**

3-4 urteko umeei zuzenduta 'Nolakoa naiz ni?' ipuin kontaketa

saio berria. Ekintzan parte hartzea irekia da baina aurrez izena eman behar da, ume kopurua jakiteko. aisia@ttakun.com helbidera idatzi edota 943 37 14 48 deituta egin daiteke.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

**Osteguna 27, 18:00etan**

Kontukantoei ipuin kontalari saioa. Honakoa 6, 7 eta 8 urteko umeei zuzenduta egongo da. Doan. Haurrak bakarrik sartuko dira eta saioa puntual hasiko dela azpimarratzen dute liburutegiko arduradunek. Behin saioa hasita, ezingo da bertara sartu.

## Besteak

OKENDO PLAZA

**Astearte 25, 19:00etan**

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela eta Kukuka taldekoek dantza ezberdinak egingo dituzte plazan eta jarraian, 100 herritarren artean, puntu more handi bat osatuko da.

## Bertsolaritza

ARRIESKALLETA ELKARTEA

**Larunbata 28, 21:00etan**

'Bertsomotion 3D' bertso-afari berezia Unai Iturriaga eta Andoni Egaña bertsolariekin. Unai Muñoa herriko bertsolaria ariko da gai jartzailer lanetan. Afarirako txartelak dagoeneko Jalgin eros daitezke 25 eurotan.

## Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIA

**Azaroan zehar**

Urriaren 18an ospatu zen Euskal Jaiko argazki erakusketa ikusgai izango da hilabete osoan zehar Jalgin. Egun horretan ateratako argazki guztien artean herriko Etxarri argazki dendak osatutako bilduma da.

## Jaialdia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

**Larunbata 29, 18:30ean**

Gure Ametsa-Jalgune elkarteko kideek urteroko Jaialdi erraldoia egingo dute kultur-etxean. Honetarako kanta eta dantza zein antzerki bereziak antolatuko dituzte.

# Herritarren txokoa

### Galdutako gauzak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota: hamar txirrinda, bi mugikor, bi pultsera, bideo joko bat, monopatina, bi diru zorroa, bateria eta urrunetik gidatutako auto kargatzailea, hortz protesi bat, graduatutako betaurrekoak eta eraztun bat. Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epea dute Udaltzainen Bulegora hurbildu eta jasotzeko, goizez 9:00etatik 13:00etara.

### Kromo Aldaketa

Herritar talde bat Okendon igandetan kromo aldaketak egiteko hitzordua egiten hasi da 12:00etatik aurrera. Kromo bildumak osatzeko zaletasuna duten guztiak animatzen dituzte bertara gerturatu eta trukean aritzeko.

### Usurbilgo Lanbide Eskola

2014ko ekainean ikasketak amaitu zituzten ikasleek tituluaren eskaera egiteko aplikatiboa martxan dago eta epe laburrean eskolatik pasa behar

dute. Bestalde, 2013an titulua eskatu zutenek hau jasotzera pasa daitezke.

### Txintzarri banaketa

Aldizkariaren banaketan hainbat aldaketa egin ditugu. Hauek finkatu bitartean, gerta daiteke aldizkaria etxean ohiko ordutegian ez jasotzea. Hau gertatzen bada eskertuko genizuke gurekin harremanetan jartzea.

### Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza izango da Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan hilabetero bezala. Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da azaroaren 24ean, arratsaldeko 17:00etan.

# Sarean

## Elhuyar eta Forvoren #esanHitza erronka abenduaren 3rako

'Baietz abenduaren 3rako euskarazko 20.000 hitzen ahoskera lortu sarean!' hori da Elhuyarrek botatzen duen erronka.

Elhuyar hiztegien eta Forvoren webguneek sortu dute #esanHitza erronka.

Euskarazko ahoskerak biltzea du helburu, modu horretan Interneten euskara gehiago entzuteko.

Gaur egun, Elhuyar hiztegien webgunean bertako hitzen ahoskera entzun daiteke, Forvori esker. Aukera hori oso lagungarria da euskara ikasten ari direnentzat... baina hitz guztiak ez daude entzuteko moduan. Edozeinek grabatu dezake ahoskera hobeto azaltzeko bideoa egin dute eta #esanHitza izenarekin aurki daitezke youtuben <https://www.youtube.com/watch?v=lnRF51R3MrA>. Hiztegien sartuta, hitzak ahoskera grabatuta ez badauka, grabatzeko botoi gorria azalduko da.

Hau sakatuta Forvoren gunera salto egin eta bertan, beti ere ordenagailuaren mikroa piztuta, grabatu ahal izango da hitza.

Elhuyar hiztegien bloga

Hartu parte #esanHitza erronkan

Escrito por Elhuyar hiztegiak en 03/11/2014.

Baietz abenduaren 3rako euskarazko 20.000 hitzen ahoskera lortu sarean!

Ba bai, oraingo honetan erronka batean parte hartzea gonbidatu nahi zaitugu: baietz abenduaren 3rako, Euskararen Egunerako, sarean euskarazko 20.000 hitzen ahoskera lortu!

Elhuyar hiztegien eta Forvoren webguneek sortu dute #esanHitza erronka. Euskarazko ahoskerak biltzea du helburu, modu horretan Interneten euskara gehiago entzuteko.



Gaur egun, Elhuyar hiztegien webgunean bertako hitzen ahoskera entzun dezakezu, Forvori esker. Aukera hori oso lagungarria da euskara ikasten ari direnentzat... baina hitz guztiak ez daude entzuteko moduan.

Hartuko duzu parte #esanHitza erronkan? Bi modu daude parte hartzeko, eta bideo bana egin dugu azaltzeko: hiztegien...

#esanHitza parte hartu 3 comentarios

Urtebete pasatxo

Escrito por Elhuyar hiztegiak en en Webgunearen erabilera.

Urtebete pasatxo igaro da Elhuyar Hiztegiak webgune berri hau abian jarri genuenetik, eta pozaren gaude izan duen harreragatik, 10 milioi hitzgi-kontsultatik gora egin baitira webgunean. Ez da kopuru makala lehen urterako.

Bilgune argitaratutako lehen sarreran esan genuen azken urteotan euskararen zein gaztelaniaren lexikoa izan diren berrikuntzak jasotzen zizutela euskara-gaztelania/castellano-vasco edizio berriek, eta horiek une oro egia izaten jarrai dezan ahalagindu gara azken urte honetan ere. Horren erakusgarri dira hiztegien sartu ditugun 300 hitz berriak. Sarreia berri horien artean denetarik dugu. Batzuk teknologia berrien eta sare sozialetan garapenak

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintzarri@txintzarri.info

## Giza eskubideen hilabetea

azaroak 10 - abenduak 10

Azaroa

# A25

Emakumeenganako indarkeriaren  
aurkako nazioarteko eguna

Azaroa

# A25

# MOSAIKO ERRALDOIA

19:00etan

Okendo plazan

Punto morea  
emakumeenganako  
indarkeriaren  
aurkako  
sinboloa  
irudikatuko  
dugu plazan  
kartulinen bitartez

## Parte hartu

**Sexuen elkarbizitzarako  
emakumearen zentroa**

Centro de la mujer para la  
convivencia entre los sexos

askatu  
erabaki  
egin  
ari



**LASARTE-ORIA**  
UDALA - AYUNTAMIENTO

Azaroa 28 ostirala

20:00 Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan

**"Cuentos a la oreja"** - Antzerkia

MAKELUR emakumeen zentroko antzerki taldea

Abendua

Emakumearen zentroan |

**"Emakumeen kontrako indarkeriaren inguruan  
egiak eta gezurrak"** Erakusketa